

2017ko uztailaren 3tik 8ra bitartean buletineta argitaratutako interes orokorreko xedapenak (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBEO)

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2017/07/03

- 2017ko ekainaren 14ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Arautu gabeko irakaskuntza eta prestakuntzaren VIII. hitzarmen kolektiboa. 7707 xedapena – 22 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2017/07/06

- 2017ko ekainaren 14ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira Autoeskolen hitzarmen kolektibo nazionalari dagozkion 2015 eta 2016. urteetarako soldaten taulak. 7879 xedapena – 2 or .
- 2017ko ekainaren 22ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Komenientziako saltoki kateen VI. hitzarmen kolektibo sektoriala. 7881 xedapena – 29 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2017/07/07

- 2017ko ekainaren 22ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Madrilgo Erkidegoko ikastetxe pribatuetan goi mailako prestakuntza zikloak ematen dituzten irakasleentzako soldataren osagarri bat sortzeari buruzko akordioa, Guztiz edo partzialki funts publikoekin finantzatutako irakaskuntza pribatuko enpresen VI. hitzarmen kolektiboari loturik. 7956 xedapena – 3 or.

II.- XEDAPEN ARAUTZAILEAK:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2017/07/04

- **ESTATUBURUTZA.- Jabetza intelektual.** - 12/2017 Errege Lege Dekretua, uztailaren 3koa. Honen bitartez, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina aldatzen da, kopia pribatuaren bidezko konpentsazioko sistemari dagokionez. 7718 xedapena – 11 or.
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. – Prozedura administratiboak. Kudeaketa informatizatua.** - HFP/633/2017 Agindua, ekainaren 28koa, zeinaren bidez onartzen baitira Estatuko Administrazio Orokorreko Ahalduntze Erregistro Elektronikoa eta Toki Entitateen Ahalduntze Erregistro Elektronikoa inskriba daitezkeen ahalduntze ereduak; era berean, apud acta ahalduntzeak bitarteko elektronikoen bidez egiteko baliozko sinadura sistemak ere ezartzen ditu. 7719 xedapena – 25 or.

2017/07/05

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.- ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETA.** - 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, zeinaren bidez garatzen baita irailaren 9ko 30/2015 Legea, Lan-eremuan Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duena. 7769 xedapena – 36 or.

2017/07/08

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.- Enplegu publikoaren eskaintza.-** 702/2017 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, zeinaren bidez onartzen baita 2017rako enplegu publikoaren eskaintza. 7978 xedapena – 22 or.
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.- Antolaketa.-** 703/2017 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, zeinaren bidez garatzen baita Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren oinarrizko antolaketa organikoa eta aldatzen baita azaroaren 11ko 424/2016 Errege Dekretua, ministerioen sailen oinarrizko egitura organikoa ezartzen duena. 7979 xedapena – 21 or.

EHAA (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria) <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cs2017000013>

ALHAO (Arabako LHren Aldizkari Ofiziala)

2017/07/05

FORU AGINDUA (NEKAZARITZA SAILA). - 221/2017 Foru Agindua, ekainaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoan suaren erabilera debekatzen duena, salbuespenezko izaeraz eta aldi baterako, nekazaritza eta baso lanak egiteko gomendioak emateaz gainera. 2526 xedapena – 1 or.

EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA JUSTIZIA SAILA). – 2017ko lan egutegia. **Zuzenketa:** 2016/3539. 2541 xedapena – 1 or.

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2017/07/06

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 2/2017 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Itsaso udalerrri berria sortzearen ondorioz Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2017. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arauaren III. eranskina aldatzen duena. 4857 xedapena – 1 or.

Kepa Bilbao Zubiatur

Tel.: 94 425 25 15 Faxa: 94 423.22.95

e-maila: informacion.juridica@mutualia.es



MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO 26 - 48009 BILBO